

# Etnologia gerra garaian

**Dénis Laborde**  
Parisko CNRS-ean ikertzailea

Etnologoen eta etnologiaren eginbehar tradizionalak gogoratzen dira hasteko. Bere sorrera baldintzatuak gizarte primitiboetako arazoak deskribatzailerik bihurtu izan duela azpimarratzen zaigu eta gaur egun egoera horretatik aterata nahi duen etnologo korrontearen abiadan inplikatzeko da autorea. Etnologia ikusteko molde honek uste du giza zientzien arteko bete-beharren banaketa tradizionala gainditu beharra dagoela, giza zientzietako edozein ikergaiki azken finean izateen eta gauzen gobernamentua aztertzea bailuke xede, distantzia kritikoarekin, behaketa postutik arituaz, behatzaile-jarrera atxikiarekin. Hau guztia Parisko Tribunal baten aitzinean euskal iheslari bati eginiko epaiketa baten azterketarekin ilustratzen digu autoreak.

Firstly the article remembers traditional tasks of ethnologists and ethnology. Its conditional origin became it a tool to describe problems of primitive societies. The author involves himself within the course of ethnologists who want to take it out of that situation. This view of ethnology thinks it is necessary to take over the traditional classification of the tasks of social sciences. Any item of social sciences has the final objective of analysing the govern of beings and things, with attitude of an investigator. The author illustrates all this with the analysis of the judge of a escaped Basque in the Tribunal of Paris.

## 0. Sarrera gisa\*

Etnologia ez dute bere metodoek ez bere objektuek mugatzen, behintzat objektuari errealitate sozialaren arlo berezi bat dagokiola ulertzen bada. Gaur egun arrunta dirudi adierazpen honek. Hala ere, luzaz, etnologiak bere originalitatea ikerketako arlo propio bat ukaitetik eta bere bidezketasuna bere lurraren egoera geografikotik lortu izan ditu. Potentzia kolonialen zerbitzuko, etnologia sorrera beretik eta hogeigarren mendeko lehen hamarkadetan *gizarte primitiboan* (oraino bizirik dagoen terminologian) behaketa, analisi eta manipulaziorako lanabes garrantzizko bat izan da. Hainbatean izan da horrela non haren definizio ezaguenak gizarte primitiboan jakintza dela baitio.

Gertatzen dena, ordea, hauxe da: gizartearen dibertsitatea ezin dela murriztu (heuristikoki ez bada behintzat) ereduetera edo klaseetera. Etnologia historikoki manatzera bideratu izan den arlo erraldoi horren unitate atzemanezina da, argi eta garbi hitz eginez. Nola marraz genitzake muga objektiboak area geografikoen eta jendetzen artean? Nola elkartu, sailkatu, bereizi, mugatu hitzarmena egiteko gisa jendetzak? Saio anitz egin izan da helburu horrekin, Durkheim-engandik (integratioa-anomia) Tönnies-engana (komunitatea/gizartea), edo Weber-engandik (tradizioa/arrazionalitatea) Lévi-Strauss-engana (gizarte hotza/gizarte beroa) egin-dako bereizketak lekuko. Saio hauek guztiek porrot egin dute. Gizartearen berezketa handi hauek egiteko jartzen diren lanabesak genetikoak baitira (instrumentazio kontzeptualaren alorrekoak) eta ez generikoak (errealaren diskriminatzaileak), alegia. Beste gisa batera adierazita, geuk sortzen baititugu ikerketarako, sailkapenerako lanabes propioak, eta molde batean tipologiek ere esperientzia egin beste biderik ez baitute.

Kontzientzia hartze horrek ikergaiaren leherketa ekarri du. Zer da orduan etnologia gaur egun? Ikerlari gutxik erantzun diezaioke galdera honi. Lan egiten dugun area geografikoaren kriterioa ez da gehiago definitzaile, eta duela gutxi arte bururatzen genuen proiektu etnologikoekin haustura dakar, adibidez gure mendebaldeko gizartearen ikasketari loturik berriki garatzen den etnologiak. Geure gizarte propioak etnologiaren lanabesekin aztertzen ditugu, eta lanabes horiek gure lan propioak norabidetzearen arabera egokituaz birberitzen ditugu. Bat-batean, etnologiak, duela gutxi arte folklorea deitzen zen ikergaia aurkitzen du (oraino noizbehinka horrela deitzen dena). Baina aldaketarik bada, folkloreak gure laborari gizarteetan antzinatean sorturikoak ikastea pribilejiatzen zuen bitartean, etnologiak hiritar gizarteekin loturik dauden arazoak aztertzen baititu. Soziologiarekin parez pare lan egiten duen hiritar etnologiaren garapena, ziurrenik, azken urteetako gertakizunik aipagarrienetarikoa da jakintza munduan. Euskal gizartea bezalako batean ikergai-zatiketa honen arazoa funtsezko gertatzen da.

Gaur egun euskal etnologiaz hitz egin al daiteke gehiagoko ardurarik gabe, kartzelak gatibuz beterik daudenean, bonbak isiltzen ez direnean eta herri baten hitzarmena den Konstituzioa jendetzaren zati handi batek bortxaz jazartzen duenean? Hemen datza berriro etnologiak aztertzen dituen objektuen arazoa. Zer objektuz interesa daiteke edo interesatu behar du etnologoak? Eta gatazka sozialen etnologiaz interesatzea erabakitzen badu, adibidez, edo gatazka politikoez,

---

\*. Artikulu hau Aitzpea Leizaola andereak frantsesetik euskaratua da.

nola parte hartu behar du parte ez izateko? Amestu al dezake bere behaketa ezarriko duen hartaz ideia politikoen kalko besterik izango ez den diskurtso etnologiko batek? Amestu, ezbairik gabe... baina gatazka bat aztertzen dugularik, parentesi artean jartzerik ba ote da borrokaldi batean sartzen diren sinismenen edukia, gure azterketako gatazkan sartzen diren sinismen horien mekanismoak neurtzen kontzentratzeko? Besteak beste arazo horiek aipatu nahi ditut lan honetan.

## 1. Benetako egitarau baten falta

Lan honek *Etnologia gerra garaian* du izenburu. Izenburu honek zenbait zehaztasun behar ditu. Eta lehenik honako hau: ez nator Iruñera “egia-programa” batez kargatuta. Ez nator lejislatzera, legeak egitera. Ez dut nik esango hemen zer izan behar duen etnologiak Euskal Herrian edota zerk izan behar duen Euskal Herriko etnologia. Leku txarrean nagoke horretarako. Ez dut esango zer dagokion etnologiari eta zer behar duen etnologiatik kanpora ere. Beste modu batera esanda, ez nator muga diziplinarioak ezartzera, ez eta aholkuak ematera ere ez; dut metodo bat azalduko, ez eta autoritate-argumenturik emango ere. Lehenik (eta etnologoak hartzen du orain hitza), Euskal Herrian autoritate-argumentuek inposatzeko aukerarik ez dutela konturatu naizelako; bigarrenik arazoa ez datzalako nire ustez euskal gizartearen etnologiaren arazoa *konpontzean*, taularatzean baizik. Etnologiak gure esku uzten dituen tresnak zertan izan daitezke lagungarri hainbeste urtez gerran dagoen euskal gizartea ulertzeko? Hau da galdera. Eta euskal gizartea bakarturik eta mundutik aparte ez dagoenez, azkar uler dezakegu galdera honek gutxienez Mendebaldeko Europako gizartearen eraketa zalantzan jartzen duela.

Galdera hau egiterakoan, nire hitzaldia bi zatitan banatu dut. Lehen etnologia diziplinaren antolaketari dagokiona. Bigarrena ariketa aplikatu moduko bat izango da, eta iaz Gasteizen “Etnologia eta Nazionalismoa”ri buruzko Kongresuan aurkeztu nituen zenbait interrogazio eta galdera jasoko ditu. Has gaitezen beraz lehen zatiarekin: etnologia pentsamendu-diziplina bezala.

## 2. Etnologia diziplina bezala

Hemeretzigarren mendean sortzen eta ondotik finkatzen hasi zirenetik, giza zientziak lehia dabilta. Lehia eta konpetizioa gaur egun modu zehatz batean aurrekontuetan, irakaskuntza alorretan, argitaletxe-sare eta oposizioetan ateratzen diren lanpostuetan ikus dezakegu. Estatu frantsesean lehiaketaren irabazle nagusia soziologia izan zen eta da: soziologia ez da bakarrik ikerketa soila, institutuetan ere irakasten da gaur egun. Etnologia edo antropologia soziala oso urruti gelditu dira, ikerketa-diziplina besterik ez dira. Unibertsitate bakan batzuetan besterik ez da irakasten eta ikerlari gutxi du lanpostutzat: hiru ikerlari aurten Estatu frantses osorako eta etnologiak jorratzen dituen area kultural guztietarako. Azkenik, soziologia eta etnologiatik oso urrun folklorea dugu. Alor honetan ez dago ez irakasle-plazarik, ez ikerlari-plazarik ez eta maila profesionalean lanposturik ere. Arkaikotzat jotzen da folklorea eta museoetara mugatzen da, edota elkarteetako militanteen esku uzten. Zer irizpideren arabera egiten da banaketa hau?

Ikertzen dena, ikergaia, omen da erabakigarria alorra bereizteko. Amazoniako Achuarrek ikertzen ditudala? Etnologia egiten ari naiz. Nafarroako Joaldunak ikertzen ditudala? Folklorearen egiten ari naiz. San Ferminetan tabernetako jendekopuruaren koefizientea ikertzen dudala? Soziologia egiten ari naiz. Zein diziplinari atxikitzen gatzaitziona ikergaiaren baitan datza. Zuzenean Jainkoak emandako diziplina-banaketa balitz bezala gertatzen da guztia, edota unibertsitate-sistema orojakitun batek emandakoa...! Etnologiak iragan kolonialistaren erroak lantzen ditu eta urrutiko gizarteez arduratzen da. Folklorearen gizarte tradizionalaz arduratzen da, laborari-mundua du ikergai eta beratu surbibentzien bidez aztertzen da. Hermeretzigarren mendean Europako herrien inbentziora eta historiaren historizaziora bultzatu duen mugimendu bikoitzetik sortua dugu folklorea. Eta honekin batera, folkloreak laborari-mundua hartu du bere ikerketa eremutat eta biltzearen premia bere tresna kontzeptual bakarra bilakatu du. Alfabetatu gabekoenganako joera printzipio epistemikotzat jo izan da, helburu bakarraren lagungarri: hots, historiarik gabeko jendeen historia egitea. Azkenik, *soziologia* “modernitateaz” arduratzen da. Mundu urbanoa bere “txoko ekologiko” bihurtu du, eta datu estatistikoei esker gure giza jokaerak kuantifikatzen saiatzen da. Hona hemen nola ikergaiaren arabera etnologo, folklorista edo soziologo bihurtzen garen.

Baina ekintzak ez dira horretara mugatzen. Gure giza portaera guztiak ezin daitezke automatikoki hiru diziplina hauetakoren batean sailkatu. Amets egin daiteke, noski, guztia frederatu eta bil lezakeen antropologia batez, Emmanuel Kanten modura, “gizakia munduko biztanlearen ezagutza” litzatekeen antropologia batez. Baina zein ikuspuntutatik begiratu behar ditugu gizakiak munduko biztanle gisa ikusteko? Ez al gara gu geu munduko biztanle? Diziplinen banaketa ez datza hain zuzen ere ikergaiaren ezagutza batean, ikergaia begiratzeko moduan baizik. Azken puntu hau oso garrantzitsua iruditzen zait. Egiazki gure gizarteetako jakintza antropologikoaren antolaketa instituzionalak egiten du banaketa hau (etnologia, folklorea eta soziologia), tradizioztatik hartzen den halako edo bestelako filiazio intelektuala dela medio, halako irakaskuntza-katedra edo halako argitaletxe-sarea dela medio, idazleak markatuz eta etiketak jarritz.

Horrela, giza zientzien arteko lehia ikur eta ereduak sortuz eratzen da: aita fundatzaileak, sortzaileak hain zuzen ere. Errekonstituzio genealogiko batek Le Play, Durkheim edo Mauss soziologiaren sortzaile ezartzen ditu, Malinowski etnologiaren sortzaile, Van Gennep folklorea, Barandiaran euskalgintzarena... Diziplina bakoitzak bere errespetabilitatea sortzaileak eragindako eredu zientifikoaren pertinentzian oinarritu nahi du. Aita sortzailearen oroitzapen eta lanen atxikimendu hagiografikoaren bitartez egiten da laudatzea. Hau da, diziplina bakoitzak bere Konstituzioa eratzen du. Eta diziplina hauetariko bati atxikirik deritzon edozein ikertzailek onartu behar du Konstituzio hori. Irakaskuntza filial guztien zentzua da.

Jakina, gaur egun ikergaia ez da dagoeneko banaketa horretarako kriterio aski baliagarria. Badira hainbat instituzio zeharkako ikerketa-moduak jartzen dituztenak. Horren lekuko Europako etnologiaren bermatzea edota berriago den etnologia urbanoarena, generoen fusio-saio ditugunak: geure gizartea ikertzen dugu, Achuarrek ikertzen ditugun bezalaxe. Baina ez al gaude oraindik ere ikergaiaren mugetan? Etnologoak etxeko altzarrietan izango du interesa, edota ahaidegoan; kirolaren praktika hirian edota kantu korala ikertuko ditu. Linguista-heziketarik

badu, etnolinguistika egin ahal izango du eta, merkatuetako oihuak ikertu ahal izango ditu, adibidez. Musikari-heziketarik baldin badu etnomusikologia egin ahal izango du eta, adibidez, trikitria iker lezake. Baina joango al da urrutirago? Laborari arkitektura ikertzen dabilen etnologoak ekar al dezake ber denboran gogora boterearen banaketa konstituzionala, Jainkoa existiarazten den modua edota Bizkaiko siderugiaren krisia? Turismoa? Euskal Herrian ikertzen ari den etnologoak jo al dezake ber denboran ezkontza-usadioetara, instituzio judizialen funtzionamendura edota ikerketa zientifikoaren alorretara? Dagokion eskumen-eremutik kanpo dabilela emango luke. Zer egiten du, ordea, Amazoniako Achuarrek ikertzen dituen etnologoak, hori guztia ez bada?

Monografia berean, aurrean dituen indarren definizioa, gizaki, jainko eta ez-gizakien arteko botere banaketa deskribatzen ditu, bai eta elkarrekin konpontzeko prozedurak, erlijioa eta botereen arteko loturak, arbasoak, kosmologia, jabetza-eskubidea, eta landare eta abereen izendegi-taxonomiak... guztiak deskribatzen ditu. Amazoniako Achuarrek ikertzen dituen etnologoak ez ditu hiru liburu egingo: lehenengo bat jakintzei buruz, bigarren bat botereei buruz eta hirugarren bat usadioei buruz. Liburu bakar bat besterik ez du idatziko eta bertan Achuar gizartearen alor horiek bateratzen saiatuko da. Ezin al genitzake gizarteak prestutasun berarekin aztertu? Euskal gizartea ikertzen duen etnologoak ezingo al lituzke gizarte honek dituen alor ugariak bateratu eta elkarlotu?

Iruditzen zait orain mundu modernoaren etnologiaren betebeharra gure elkarbizitzaren adarrak zer nola antolatzen diren deskribatzean datzala, bai eta era berean, zergatik eta zein eratan elkarrengandik banatzen diren adar horiek guztiak eta zergatik eta nola adar hauetatik batzuk elkartzten diren. Gure mundu moderno honetako etnologoak rola, ekintzak, gaiak zehazteko balio duten kompetentziak, zuzenbidea eta kontzientzia banatzen diren puntu zehatz horretan behar du izan, hau da, gure gizarteko giza jarrera guztiak banatzen diren puntu horretan. Hain zuzen ere, gure gizarteak nola mantentzen diren... edota pikutara doazen.

Nire ikerketetatik ateratako adibide bat hartuko dut, hain zuzen ere, Parisen epaitzen diren euskal militante politikoaren epaiketei buruz dudana ikerketatik.

### **3. Etnologo bat epaiketa batean**

Azken hamabost urte hauen ezaugarri bezala Frantzia eta Espainiaren arteko harreman diplomatikoen sendotzeak akusazio penalaren berrindartzea ekarri du nabarmenki. 1986ko irailaren 26ko lege antiterroristak Parisen gaizkile-elkarte akusaziopean dauden euskal militante politikoak terrorismo-aferez arduratzen den auzitegi berezi batera bideratzen ditu, magistratuz soilik osaturiko auzitegi batera hain zuzen ere. 1986az gero epaiketa horietako zenbaitzuetan izana naiz. Epaiketa ordea ez da berez etnologoaren ikergaia. Hauetariko alor bakoitzean (historia, zuzenbidea, alegia), badira analisi-metodo zehatzak, ontzat hartzen diren ikerketa-bideak, eta analisi-metodo horiek bide zehatz batzuk finkatzen dituzte, zeinek eramaten baituen epaiketaren analisisira. Hots: zer egiten du orduan etnologo batek epaiketa batean?

Etnologo naizen aldetik, aukera daukat. Edota hauetako analisi metodoren batean sinisten dut eta bertan sartzen naiz buru-belarri, edota hauetako metodo bakoitzaren inguruan susmo-lanetan hasten naiz. Edota balizez markaturik dagoen bide bat hartzen dut, edota bide zehatz bakoitzak aurkiarazten duena ikertzen dut, bideratzen duena eta debekatzen duena, argitzen duena eta iluntzen duena, eta beraz, bidezidorrak, zeharbideak hartzera beharturik nago. Gauza ez baita nork dioen egia, legegizonak edo historialariak. Gauza ez baita erabakitzea zein bidek, posible diren bide guztietarik, eraman gaitzakeen epaiketaren analisi egiazkoago batera. Maila apalago batean bide hauetariko bakoitzak zein galderatarara daraman ulertzea litzateke kokka.

Adibidez, geure buruari galde egin geniezaioke epaiketa horiek epaiketa politikoak diren ala ez. Ikuspuntu juridiko batetik, epaiketa horiek ez dira epaiketa politikoak. Ez dute epaiketa politikoaren marka juridikorik. Hala ere,aldi berean, batek pentsa dezake bi estatuen arteko kolaborazio polizial, juridiko eta diplomatikoetan oinarritzen diren neurrian, epaiketa horiek politikoak direla. Jurista batek agerian jar ditzake akusazioak erabiltzen dituen trikimailuak epaiketa horiek juridikoki epaiketa politikoak izan ez ditezten. Etnologo naizen aldetik, asunto hau parentesi artean jarriko dut eta ez dut ekintza juridikoez, prozeduraz jardungo, epaiketaz baizik. Ederki asko har dezakegu epaiketa hitz-trukaketa baten esparru erritualizatu bezala. Eta errituaz ari garenez, etnologoa bere saltsan dago hemen. Epaiketa norberak besteari *usteak* egozten dizkion esparrutzat jo dezakegu. Eta besteari *usteak* egozteaz ari garen heinean ere, etnologoa bere salsan dago. Edonola ere, epaiketari ematen zaion atentzio-mota desbideratu beharra dago. Adibidez, epaiketa idealki itxita dagoen esparru gisa hartu ohi da, zeinean justiziak lasaitasun osoz eta independentzia osoz jardun lezakeen. Errituetan interesa duen etnologoak beha dezake nola funtzionatzen duen, horretan izango du interesa: nola argudiatzen du bakoitzak? Zeren eta ez baitzaie gauza bera esanarazten giza ekintza berei, edota gauza berei, deskribatzeko aukeratzen den sistemaren arabera. Eta Josuren pistolaz ariko naiz.

Josu Urrutikoetxea Bengoetxea "Josu Ternera" 1989ko urtarrilaren 12an atxilotu zuten Baionan arma bat zuela. Parisen 1990ean epaitu zutenean, prokuradoreak, Sytoller andereak, 10 urteko zigorra eskatu zuen arma dela eta:

– Oso pistola sofistikatua da, oso pistola automatiko modernoa, polizia frantse-seko goi funtzionarioek duten pistola baino perfektionatuagoa, oso garestia den pistola!

Josu Urrutikoetxeak buruaz baietz dio eta areto aldera jirutzen da barrez. Aretoa denak barrez ari dira. Presidente haserretzen da. Aretoa hutsaraziko duela mehatxatzen du:

– Audientzian egon nahi baduzu, zeure burua kontrolatu beharko duzu.

Urrutikoetxearen aldera biratzen da eta prokuradorearen ordezkoa errespetatzea eskatzen dio. Orduan Urrutikoetxea serio jartzen da:

– Entzun, presidente jauna, hitz egin dezagun gauza serioez! Arma bat baldin banuen, ez da gaizkile bat naizelako, baizik eta Konstituzioaren 2. artikulua

autodeterminazio-eskubidea ukatzen digulako eta 8. artikulua Espainiako erresumaren lurralde-integritatea babesteko esku hartzeko aukera ematen diolako.

Nola aztertu hitz-trukaketa hau? Hitz-interakzio labur honetan bi erreferentzial antagonistiko azaldu dira, eta bi interpretazio kontrajarri dakartzate. Ekintza berberak, hau da atxilotuak arma sofistikatu bat izanak, ez du esanahi bera izango lege baten edo bestearen agerpen gisa hartzen bada. Prokuradorearentzat, arma akusatua gaizkilea den frogatuta da. Arma edukitzea legeak debekatu egiten duenez, 10 urteko kartzela-zigorra merezi du. Akusatuarentzat arma edukitzea beharrezkoa da Konstituzio espainiarra dela eta. Pistola euskal estatu independente eta zuzenago bat sortzeko konpromiso armatuaren beharrezko ikur bat da. Ministerio publikoak kode penalaren arabera arrazoitzen du. Akusatuak bere konpromisoa oinarritzen duten arrazoiak arabera arrazoitzen du: Euskal Herriarentzat autodeterminazio-eskubidearen errekonozimendu eza. Gauza berberak, kasu, pistolak, bi erreferentzial kontrajarri jartzen ditu martxan, eta hauek gertaera berberaren bi irakurketa sortarazten dituzte. Baina hori esatea ez da nahikoa, analisis urrunago joan beharra dago, Urrutikoetxeak 10 urte pasako baititu kartzelan. Zergatik?

Epaituaren aulkiaren esparruan, erreferentzial zilegi bakarria kode penala delako. Prokuradorearen erreferentzialak beraz badu baliorik, ez ordea Urrutikoetxearenak, hau lekuz kanpo baitago. Epaituak ezin dezakete pistola zuzenbide-instrumentu kontsideratu: ordena publikoaren aurkako mehatxu bat besterik ez da. Akusatua kondenatua izango da. Baina ederki aski uler dezakegu auzitegiak pistolari buruz egiten duen interpretazioan, ez dela soilik akusatua arma batekin atxilotu izana kondenagarri. Akusatuaren egoera mentala ere jartzen da zalantzan. Magistratuek ondoko esango dute:

– Baina, tira, nola liteke Urrutikoetxeak sinistea arma bat izateak estatu demokratiko baten Konstituzioarekin lotzea baliozko argudioa izan zitekeenik?

Beraz akusatuaren kondena uste edo siniste faltsu bat egozteagatik ere badator. Are zehazkiago, auzitegiak faltsua dela jakin badakien siniste bat. Auzitegiak ez du beraz soilik ekintza bat kondenatzen, aldi berean nahitaez ekintza horren irakurketa bat ahalbidetzen duen sistema erreferentziala kondenatzen du. Erreferentzial bakarria, kode penala, legitimatuz, instantzia judizialak diskurtsoaren itxitura bat ezartzen du, ekintzen irakurketa bakarria, unibokoa bermatzeko. Hona auzitegiko presidentek testifikatzaera etorritako Gilles Perrault-i egindako galderaren zergatia:

– Justiziari al dagokio historiari aurre hartzea?

Urrutirago joan gaitezene, bada.

Hitz-trukaketak enuntziazioaren subjektu bakoitza mundua sare baten barnean deskribatzera darama. Siniste bat ez da bakarrik existitzen. Siniste batek toki erlatibo bat dauka mundua deskribatzeko erabiltzen diren sinisteen serie mugagabeetan. Siniste bakoitza indibidualiza daiteke, seriean duen toki diferentziala dela medio, baina serie honetako sinisteen multzoak ematen dio koherentzia guztiari. Nola bada isolatu siniste hauetako bat eta kondenagarritzat jo? Esparru mentalak

ez dira bata bestetik independenteak. Beste norbaiti siniste bat egozte ez da siniste berezi bat izendatzea, siniste sare oso bat konstatatzea baizik, hau da erreferentzial bat: munduaren sistema bat. Ekintza batzuk akusatuei leporatzen zaizkienean, ekintza horiek etengabe ekiteko intentzio bati lotzen zaizkio, beraz erreferentzial bati. Munduaren sistema bat da beraz zalantzan jartzen dena, eta munduaren sistema hori zalantzan jartzeak aterarazten du epaiketaren ekintza epaituaren aulkiaren esparru “itxi idealetik” kanpora, esparru politiko batera.

#### 4. Justizia nola egiten den

Baina etnologoak ezin du horretara mugatu. Ezin da argumentazioaren analisi batekin edota akusazioaren edo defentsaren muntaia erretorikoarekin konformatu. Ezin da soilik enuntziatuaren mailan gelditu, esan denaren mailan. Gauzak esateko moduz, hau da enuntziatioaz ere interesa hartuko du, eta honen bidez sartuko da eritualaren analisisan. Nola jartzen da martxan hitza? Etnologoak kasu egingo dio publikoaren algarari Josu Urrutikoetxeak pistola oso garestia zela aipatzen duenean. Eta orduantxe ulertuko du bigarren erreferentzial bat jarri dela martxan epailearen aurrean: audientziako publikoa, euskal gizartea ordezkatzeko duena, zeinaren izenean akusatua hartu baitu bere konpromisoa. Etnologoa epaiketaren amaiera arte gelditzen bada, beste zerbaitez ere ohartuko da: publikoak *Eusko Gudariak* kantatzen du. Mementu horretan publikoak lehenengo aldiz hartzen du hitza eta magistratuak isilarazten du. Inbertsio-erritu bat da. Indar-neurketa baten adierazle da.

Ulergarri suertatzen da komunitatearen erreferentzia martxan jartzen denean auzitegian mementuko konplizitate soila baino gehiago gertatzen dela. Hain zuzen ere militante mobilizazio oso bat da epaiketak irauten duen denbora guztian mobilizaturik dagoena. Etnologoa konforma al daiteke hori ohartaraztearekin, hori aipatzearekin, gertutik gauzak nola gertatzen diren Euskal Herrian ikustera joan gabe? Inola ere ez, noski. Beraz, gertutik ikustera joango da eta, adibidez, manifestazioen indar mobilizatzailea aztertuko du, bai eta horietan erabiltzen diren sinboloak ere. Sinbolo horiek aldi berean hainbat gauza ekarriko dituzte gogora: preso politikoak, ordena-indarren aurkako gatazkak, konfrontazio armatuak, elkartasunaren antolaketa, auzoetako elkarlaguntza sistema eta ardura familiarrak... Etnologoak euskal kultura eta ohiturak ikertuko ditu, botere banaketa eta historia. Gizarte-eraketaren sistema oso bat argitu beharrean aurkituko da, bai eta euskal gizarteko indarren arteko harreman konplexuak ere, haustura eskatzen duten indarrak, konpromiso bortxazkoari uko egiten diotenak, eta gaurko Estatuaren aldekoak, zeinak euskal emantzipazioa geldiarazi nahi duten. Etnologoak “munduko sistema” desberdinen konfrontazio hori esplizitatu behar du. Baina hori ez da guztia.

“Justizia nola egiten” den ere ulertu behar du. Sistema judiziala, gizarteko botere banaketa, Konstituzioa... interesgune izango ditu. Nola ezartzen dira epaileak “inpartzialitatearen eredutzat”? Nola administratzen da “inpartzialitate” hori? Baina hori ikertzea oraindik ere ez da nahikoa, zeren eta kazetari ugari baitzeuden auzitegian. Epaiketaren berri argitaratuko dute prentsan. Zer tratamendu desberdin du gertakari berberak prentsan? Zer nola zirkulatzen dute demokrazia, independentzia, tolerantzia, justizia ideiek artikuluetan? Eta nola eraikitzen dute ideia horiek prentsak sustatzen duen sen ona? Etnologoa ez dabil lan faltan!



Etnologia ikusteko modu horrek zalantzan jartzen du giza zientzien arteko betebeharren banaketa. Etnologoak hartzen duen gai bakoitza korapilo gordiano bat izango da, zeinaren hariei tiraka ibiliko den. Gai bakoitzak ez baitu zentzurik bere izatean soilik. Zentzua hartzen du existiarazten duten giza harremanen bitartez. Edozein ikergaik azken finean izateen eta gauzen gobernamentua aztertzea garamatza beraz. Ez dago bada ikergai txiki edo bigarren mailakorik.

Hala ere, bada oraindik galdera bat zintzilik: zein da eraketa honetan, etnogoaren lekua? Imajina al dezake bere burua deskribatu nahian dabilen eraketatik kanpo? Inola ere ez, noski. Epaiketa bat ikertzen ari baldin banaiz, distantzia kritiko bat mantentzen dut epaiketarekin, baina aldi berean barruan nago, gertaeraren parte bat naiz, eta poliziak aretoa husten baldin badu, besteak bezala altxatu egin beharko dut. Bronislaw Malinowski-k etnogoaren lanaren bi alderdi horiei "behaketa parte-hartzailea" zeritzon. Etnologo gisa egoera baten lekuko naiz, gizabanako gisa parte hartzen dut. Eskema honetatik atera ezinean gaude, ez baitugu inolako aukerarik Paul Ricoeur-ek *Kronikari ideal* deritzona bihurtzeko: ez zaigu posible giza egoerak Jainkoaren lekuan bageunde bezala aztertzea.

Eraketa horren kontzientzia izatearen bidez iruditzen zait posible gerran dauden gizarteetan etnologia burutzea, hau da, polemiken eta alde edo kontrako jarre-  
ren tranpan ez erortzea, alegia. Gure lanean mementu oro behaketa-postuaren eta behatzaile-jarreraren arteko distantzia neurtu behar dugu. Behaketa-postua, ni neu ere deskribatzen ari naizen gertaeran parte hartzen ari naizela, alegia, eta behatzaile-jarrera, behatzen ari naizen egoera proiektu intelektual batekin eta ikerketa metodo batekin behatzen ari naizela, alegia. Bien arteko bereizketa garrantzi handikoa iruditzen zait. Alabaina, horrelako etnologia oraindik ere marjinala da unibertitate frantsesetan, ingelesek *Philosophy of Mind* deituko luketenetik ateratako tresnez baliatzen baita, Frege eta Wittgensteinen ildoari jarraituz.

Etnologia horrek ez ditu diziplinen arteko mugak errespetatzen. Filosofia analitikoak (eta Strawson, Davidson edo Denett-en lanak ditut gogoan) gure argumetazioaren sorburuetara etengabeko itzulia egitera gonbidatzen gaitu. Etengabe neurtarazten digu, aldi berean, gure konpromiso pertsonala, gure ikergaia hautatzera bultzatzen gaituena, eta beharrezko dugun gure urrutiratzea, etnologiaren tresnak erabiltzera sustatzen gaituena. Etengabeko neurketa horren bitartez jo dezakegu, nire iritziz, Norbet Elias-en arabera gure ikerketen berme zientifiko den "emozio desenkatu" horretara. Horrela, etnologia ez litzateke gehiago motibo errealak aparientzien itxuraz desberdintzeko erreserba lekua. Espiritu kritikoa baliabide bihurtuko luke, beste hainbat konpetentziaren arteko konpetentzia, eta behar-beharrezkoa. Zeren eta etnologiak ezin ditzake gatazka sozial eta politikoak erabaki baldin eta "giza zientzien" terminoetan gatazka horiei erantzuten ausartzen ez bada, gutxienik galderak irekitzen lagun dezake, gatazkak konprenigarriago gertatuko diren gisan formalizatzen. Hori beharko litzateke, nire iritzi apalean, bere egitekoa. Gatazkei eman beharreko erantzunei dagokienez esan dezagun sozialak izan beharko direla.

## Bibliografia

- Althabe, G., Fabre, D., Lenclu, G., (1992) (zuz.): *Vers une Ethnologie du présent*, Editions de la Maison des Sciences de l'Homme, Paris.
- Apalategi, J., (1992): *Sociología de una nación en movimiento*, Nacionalismo Konparatuen Ikasketarako Institutua, Gasteiz.
- Ayats, J., (1990): "Emblematic songs", *Trans 2*, CSIC, Bartzelona.
- Bromberger, Ch., (1990): "Paraître en public. Des comportements routiniers aux événements spectaculaires", *Terrain 15*, 5-11.
- Claverie, E., (1994): "Procès, Affaire, Cause. Voltaire et l'innovation critique", *Politix 26*, 76-85.
- Colas, D., (1992): *Le Glaive et le fléau. Généalogie du fanatisme et de la société civile*, Grasset, Paris.
- Davidson, D., (1993): *Actions et événements*, PUF, Paris.
- Dennett, D., (1987): *The intentional stance*, The M.I.T. Press, Massachusetts-Cambridge.
- Elias, N., (1993): *Engagement et distanciation*, Fayard, Paris.
- Engel, P., (1992): *Etats d'Esprit. Questions de philosophie de l'esprit*, Alinea, Aix-en-Provence.
- Favret-Saada, J., (1977): *Les mots, la mort, les sorts*, Editions Gallimard, Paris.
- , (1977): "Rushdie et compagnie. Préalables à une anthropologie du blasphème", *Ethnologie française 3*, 251-260.
- Hirschman, A. O., (1995): *Défection et prise de parole*, Librairie Arthème Fayard, Paris.
- Höffe, O., (1988): *L'Etat et la Justice. Les problèmes éthiques et politiques dans la philosophie anglo-saxonne. John et Robert Nozick*, Lib. philosophique J. Vrin, Paris.
- Laborde, D., (1998): *Les Musiques à l'école*, Editions Bertrams Lacoste, Paris.
- Latour, B., (1991): *Nous n'avons jamais été moderne. Essai d'anthropologie symétrique*, Editions La Découverte, Paris.
- Legendre, P., (1976): *Jouir du pouvoir. Traité de la bureaucratie patriote*, Editions de minuit, Paris.
- Lenclud, G., (1986): "En être ou ne pas en être. L'anthropologie sociale et les sociétés complexes", in *L'Homme. Etat des lieux*, Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, 151-163, Paris.
- , (1994): "Attribuer des croyances à autrui. L'anthropologie et la psychologie ordinaire", *Gradhiva 15*, 3-25.
- Petit, J. L., (1991) (zuz.): "L'événement en perspective", *Raisons pratiques 2*, Editions de l'Ecole des Hautes Etudes en Sciences Sociales, Paris.
- Rawls, J. (1973): *A theory of justice*, Oxford University Press, Oxford.
- Ricœur, P., (1983): *Temps et récit. 1. L'intrigue et le récit historique*, Editions du Seuil, Paris.
- Sahlins, M., (1980): *Au coeur des sociétés. Raison utilitaire et raison culturelle*, Editions Gallimard, Paris.
- Sperber, D., (1996): *La Contagion des idées*, Editions Odile Jacob, Paris.
- Strawson, P.F., (1977): *Etudes de logique et de linguistique*, Editions du Seuil, Paris.
- Veyne, P., (1983): *Les Grecs ont-ils cru à leurs mythes?*, Editions du Seuil, Paris.